

Zis ala trans? *

Boladan ei dago transgeneroak zinemaratzeari. Ondo deritzot. Zinemak, beste ezein mediok bezala, errealitatea islatu behar du. Ez da kontu guztiz berria; lehenago ere ezagutu dugu pertsonaia transik, baita euskal zinemaren ere. Esperanza Royren Katalina Erasoren kasu, Javier Aguirreraren *La Monja Alferrez*-en.

Sortu da, ordea, ezbaia. Ez betiko atzerakoien aldetik, LGTB ekintzaile batzuek gizon transak antzezteko emakume zis aktoreak hartu ohi direla, eta emakume transak antzezteko gizon zisak. Sona handiko bihurtu zen polemika *Rub & Tug* pelikulan Dante Gill mafiosoarena egiteko Scarlett Johansson hautatutakoan. Antzera jazo da Paco León andre transa delako *La casa de Las Flores*-en, edo Fanny Ardant andre transa ere *Lola Pater* filmean.

Hona galdera: zis gizonak edo zis emakumeak egokiak al dira pertsonaia transak antzezteko? Hona ene erantzuna: aktore onak egin behar dituzte paperok, zis edo trans diren begiratu gabe. Kasuan kasuan balioetsi behar da papera aktore bati ondo doakion ala ez, aurreiritzirik izan gabe zis, trans edo dena delakoa izateagatik.



Imanol Alvarez
IRAKASLE OHIA

Erabili ohi den argudioa, hots, lagun transen rolak lagun transek egin behar dituztela, baztertzailea da berez transentzat eurentzat

Pertsonaia emakume transa bada, aktoreak ere emakume izan beharko luke; ez da inporta zis edo trans den. Pertsonaia gizon transa bada, aktoreak ere gizona beharko; trans edo zis, baina gizona. Hori litzateke araua. Alta, beti egon litezke salbuespenak, pertsonaiaren arabera (transexual guztiak ez dira berdinak, zis guztiak ere ez diren bezala); aktorearen arabera (aktore zis batzuek badutelako sentiberatasun

nahikoa, beste batzuek ez...). Bikain aritu zen Eddie Redmayne *The Danish Girl*-en. Tilda Swinton primeran *Orlando*-n. Jared Leto ere andre trans zoragarria *Dallas Buyers Club*-en. Victoria Abril, aldiz, ez zegoen sinesgarri *Cambio de sexo*-n. Ekin behar dena da emakume mozorrotutako gizonezko aktore batzuek ematen duten irudi negargarria. Esaterako, Tony Cantók *Todo sobre mi madre*-n, edo are txarrago Dustin Hoffmanek *Tootsie*-n.

Erabili ohi den argudioa, hots, lagun transen rolak lagun transek egin behar dituztela, baztertzailea da berez transentzat eurentzat, hiru zioengatik. Lehenen, paper-mota bakarrerako mugatuko genituzkeelako. Bigarren, gosez hiltzera zigortuko genituzkeelako, oso pertsonaia trans gutxi baitago zine-industrian, eta zis batek ezin badu trans batena egin, arrazoi beragatik trans batek ezingo luke zis batena egin. Azkenek, euren nahien kontra ere badoalako: emakume transak emakume izan gura du, adjektiborik gabe; berdin gizon transak.

* *Zisgenero*: jaiotzean esleitutako sexua eta genero-nortasuna bat datozkion pertsona; *transgenero*-aren kontrakoa. ■

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen